

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

- *Olentzero: Izen asko ditu: Olantzaro, Onentzaro.*
- *Esanahia, "Aro Berria" dela diote askok.*
- *Azken urtera arte, ez da izan Euskal Herri osoan erabilitako irudia.*
- *Aro Berria-k esan nahi du, "Neguko solstizioa"ren garaia dela. Nolabait esanda: "Eguzkiaren Jaiotza". Hau da, neguko sua da Olentzaro. Ohitura eta gertakari desatseginak erre eta berriak hasteko garaia.*
- *Elizak ere, laugarren mendean, egun hori erabaki zuen "Jesusen Jaiotza" ospatzeko.*
- *Leku askotan, "Jesusen Jaiotza"ren mezularitzat hartzen da.*

-
- **Mari Domingi** euskal abesti tradizional batean ageri den emakumea da.
 - Azken urteotan, Olentzeroren ekitaldietan gizezko pertsonaia horrek duen protagonismoa emakumezko batekin orekatzeko asmoz, Mari Domingiri haren emazte edo neska-lagunaren rolean sartu dute hainbat ekitalditan.
 - Gaur egun, biak batera agertzeko ohitura zabaldu da hainbat lekuetan, bikotea izango balira bezala.



**IKASBIDE
KULTUR
ELKARTEA**



OLENTZERO BEGI GORRI

- Olentzero begi gorri,
Nun harrapatu dek arrai hori?
- Zurriolako harkaitzetan,
bart arratseko hamaiketan.

OLENTZERO BURU HAUNDIA

Olentzero buru haundia
entendimentuz jantzia,
bart arratsean edan omen du
hamar arruko zahagia.

Ai, urde tripa haundia!
Tralaralala, tralaralala!
Ai, urde tripa haundia!
Tralaralala, tralarala.

Ai, urde tripa haundia!
Tralaralala, tralarala!
Ai, urde tripa haundia!
sagar ustelez betia!

Bi aldiz

HEMEN HELDU GERADE

1.- Hemen heldu gerade
berri on batekin,
gure enbajadore
Olentzerorekin.
Aditu duanian
Jesus jaio dala,
laisterka etorri da
berri ematera.

*Horra! Horra! Gure Olentzero!
Pipa hortzetan dula
eserita dago;
kapoiak ere ba(d)itu
arrautzatxuakin
bihar merendatzeko
botila arduakin.*

2. Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intenziyuarekin
ikatz egitera.

Horra! Horra!...

HATOR, HATOR

Hator, hator mutil etxera!
gaztaina ximelak jatera,
gabon-gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren
ondoan.
Ikusiko dek aita parrezka
ama (e)re poz atseginez.

Eragiok, mutil,
aurreko danbolin horri
gaztainak erre artian
gaztainak erre artian
txipli, txapla, plum!
Gabon gaba
pozik igaro daigun.

ALAKEN

*Alaken! Alaken!
Ala pikula tun paire,
errespunde la pikula
tunpa
Jesus Maria Jainkoa zen.*

Adiskideook!
Ikusi al dituzue zelai
horietan artzaiak,
artzai txiki,
artzai handi,
artzai mutur leunak.

Alaken, alaken..

Bi aldiz

Bi aldiz

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi
begira horri!
Gurekin nahi duela
Belena etorri!

Gurekin nahi badezu
Belena etorri
atera beharko dezu
gona zahar hori.

Hatoz, hatoz, zure bila
nenbilen ni!
Hatoz, hatoz zure bila
nenbilen ni!
Hatoz, goazen ta gurtu
dezagun
Belenen jaio dan Haurtxo
eder hori,
Haurtxo eder hori.

2017KO GABONAK